



Lasarte-Oria ere Korrika!- Herri osoa Korrika. Horixe da larunbata arratsaldean Lasarte-Oriako kaleek erakutsi zutena, herri oso bat martxan dela euskara bihurtetik plazara ateratzeko helburuarekin. Irudi ikusgarriak utzi zituen, ehunka herritarrek osatutako tropelak herriko bazterrek zeharkatu zituen balkoi eta espaloietatik zetozkien txalo eta oihuez lagunduta. Korrikaren aurretik doan furgonetan emozioa arnasten zen, herritarren hatsa eta izerdiarekin nahastuta denak euskararen alde eginahal betean ikusten ziren, eskuz esku lekukoa hamasei aldiz aldatuz. Olatz Urdanpilleta Munterri AEK euskaltegiko irakaslearen ahotsean nabari zen hunkituta zegoela, kanta eta kanta artean herritarrek jo eta su animatu zituen bozgorailuetatik, etenik gabe zorionak emanez furgoneta barrutik ikus zitekeen argazki handiaren-gatik. Behin Korrika 18 amaituta hasiko da benetako lasterketa Lasarte-Orian, euskara elkarri emateko lasterketa, guztion ahalegina eskatuko duena. / 4-5 eta 8. orriak

3 UDALA 2013 urteko aurrekontua onartu zen Udalbatzarrean

Ostiralean egindako ez ohiko udal batzarrean onartutako aurrekontua 24.986.580,88 eurokoa da. PSE-EEK eta PPK aurrekontuari osoko zuzenketa aurkeztu arren, aurrera atera ziren. Pablo Barrio alkateak adierazi zuenez, "gehien behar dutenentzat" egindako aurrekontu "xumeak" dira.



Aste Santuan eta Pazko astean ez da Txintxarri-rik argitaratuko. Hurrengo zenbakia apirilaren 8an, astelehena izango da zuen etxetan.

ORDU ALDAKETA

Larunbatetik igandera arteko gauean, ordua aldatuko da: goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira



Bideo Lagunak

TIEN 21

Etxekotresna elektrikoetan adituak

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Erakusketa aldaketarengatik likidazioa

-20% -15% -10% -20% -15% -10% -20% -15% -10% -20%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

25 milioiko aurrekontua du udalak

PSE eta PPK proposatutako inbertsio asko atzeratu egin dira finantzatzeko modurik ez dagoelako Behar handiena dutenei begira egindako aurrekontu "xumeak" dira Pablo Barrio alkatearen iritziz

2013an ia 25 milioi euroko aurrekontua izango du Lasarte-Oriak. Bildu, EAJ-PNV eta Lasarte-Oriako Herritarren Plataformak bozkatu zuten hauen alde, PSE-EE eta PPK aurka, ostiral goizean egin zen Udal Batzarrean. Oposizio alderdiek aurkeztutako bi osoko zuzenketa eta beste hainbat zuzenketa partzial ez ziren onartu, Bildu, EAJ eta Plataformako ordezkariak argitu zuten, inbertsio horietako gehienekin bat egin arren, ordaintzeko modurik ez dutelako ikusten.

Ostiral goizean, bi ordu eta erdiko batzarren amaieran, 2013ko Lasarte-Oriako aurrekontua onartu zuten Bilduko bost ordezkariak, EAJ eta Herritarren Plataformako biak. PSE-EEko bost zinegotziak eta PPKko ordezkariak aurkako botoa eman zuten eta PSE-EEko Nerea Artamendi eta alderdi bati atxiki gabeko Marisa Zubiri ez ziren batzarrean izan. Ia 25 milioi eurokoa da aurrekontua eta sarrera eta gastuak berdintzeko 1.084.243 euroko kreditua eskatzea aurreikusi dute. Oposizioaren 47 zuzenketatik 15 onartu ziren Ogasun batzordean.

Udal Batzarrean onartutako 24.986.580,88 euroko aurrekontuaren gastu handienak, pertsonalarenak eta zerbitzuak dira, 6.583.695 eta 10.903.076 hurrenez hurren.

Pablo Barrio Bilduko alkateak nabarmendu zuenez, "gehien behar dutenentzat" egindako aurrekontu "xumeak" izan dira, hau da, inbertsioak egiterakoan gizarte sektore ahulena babesteko helburua nagusitu da.

Bere iritziz oso garrantzitsua da "nondik gotozen kontuan izatea oinarriak finkatzeko eta norantz goazen bidean ez galtzeko". Beraz, garbi izan dute egoera gordina dela, herritar asko gaizki pasatzen ari dela eta krisiak gogor kolpatu duela Lasarte-Oria. Barriok azaldu zuenez oinarri nagusiak, Gizarte Zer-

bitzu indartsua eta gastu sozialean inbertsioa izan dira.

Etxebizitzaren arazoari alokairu sozialaren bidez irtenbidea ematea proposatu zuen Barriok. Horregatik Zabaleta Berrin Udalak jasoko dituen 15 etxebizitzak ez saltzea eta alokairuan jartzea erabaki zuten, "alokairu soziala bultzatzeko, especulazioa saihesteko eta herriko alokairuen prezioan eragiteko helburuarekin".

Pablo Barriok, beste hainbat inbertsio ere aipatu zituen, besteak beste, nagusieki laguntzako 500.000 euro inguru eta enplegu arloa indartzeko 80.000 euro.

Herritarren Plataformako Juanjo Castrok nabarmendu zuenez, gustura sartuko litzukete hainbat hobekuntza, baina, gaur egungo egoera ekonomikoari egokitutako eta etorkizunari begira egindako aurrekontuak dira.

Zuhurtzia

Ogasun batzordeko buru eta EAJko ordezkari Estitxu Alkortak, aldiz, aitortu zuen krisi garaia kontuan izanik, zuhurtzian oinarritu direla aurrekontuak egiterakoan eta gerora begira, aurrezteko, gastu arruntari eutsi diotela.

Alkortak jakinarazi zuenez, Udal zerbitzurik ez kentzea, baliabideak optimizatzea, Kultura, Euskara, Gaztedia eta Kirol sailetan inbertitzea eta bereziki Gizarte Zerbitzuean arreta jartzea izan dira helburuak.



Bildu, EAJ eta Lasarte-Oriako Herritarren Plataformako ordezkariak bozkatu zuten 2013ko aurrekontuen alde.

Inbertsioen alorrean garrantzitsuen nabarmendu zuen, Blas de Lezo atzeko partearan urbanizazioa. Besialde Alkortak aitortu zuenez, Udaletxe berriaren eta Gaztelekuaren ekipamenduek gastu arrunta handituko dute.

57 zuzenketa partzial aurkeztu zituzten alderdi politikoek, gehienak, PSE-EEk eta PPK 26 eta 21 hurrenez hurren. PPK aurkeztutako, 21 zuzenketa partzialetatik 10 ontzat eman zituzten Ogasun eta Ondare Batzordean, eta PSE-EEk aurkeztutako 26tik 5 onartu ziren. Bilduk 5 aurkeztu eta 4 onartu zitzaizkion eta EAJ 4 aurkeztu eta 3 onartu.

Gainera, PSE-EEk eta PPK aurrekontuari osoko zuzenketa aurkeztu zuten eta proposamena osorik berritzeko eskatu.

PSE-EEk herriko ekonomia eta etxebizitzak suspertzea, baliabideak arazoari aurre egitea, enplegua sortzea eta lasarteoriatarren bizi kalitatea hobetzea ahalbidetuko duten helburuak kontuan hartuz proposamena berregiteko

eskatu zuen. PSE-EEren ustez, herria geldirik dago, aurrekontuak hutsuneak ditu eta soilik herritarren dirua alperrik galtzeko balio dute.

Bilduko Nerea Sanchezek erantzun zuen, esanaz, ezin dela lurrarekin negoziarioa egiten jarraitu, lurra mugatuak direla eta agortze daudela. Horregatik, Zabaleta Berriko etxebizitzengatik dirua lortu eta inbertsioak egin baino, nahiago izan dute etxebizitzak jaso eta alokairu sozialean jarri.

PPK ere testua atzera bota eta berria egiteko proposatu zuen, "talde guztien eskuhartzearekin" Vanessa Velezek esan zuenez. PPKo ordezkariaren iritziz, lau hilabeteko atzerapenarekin aurkeztu da aurrekontua, herritarren eta alderdi politikoaren parte hartzearen aldetik azken urteotako txikiena izan dute, eta bestalde, gastuari eusten zaio, baina inbertsioak gutxitzen ditu.

2014an garaiz

Pablo Barriok erantzun zion,

gauza batean arrazoiak ematen ziola: atzerapenean, "ez legeak horrela esaten duela, logikak eta eraginkortasunak baizik" eta agindu zion hurrengo urtean garaiz aurkezteko konpromisoa hartzen zuela.

Parte hartzeari dagokionez Barriok arlo horretan "bide luzea" dagoela jorrazteko adierazi zuen, auzoz auzo jasota proposamenak presente izan dituztela eta inola ere ez dela hau azken urteotan parte hartze maila txikiena izan duen aurrekontua izan, azken aurrekontua 2008koa zelako.

Era honetara, ostiralean egindako ez ohiko udal batzarrean onartutako aurrekontua 24.986.580,88 eurokoa da.

Blas de Lezoko inbertsioa, 250.000 eurokoa izango da, Atsokabarreko Zaharren egoitzako altzarietan ia 500.000 erabiliko dira, Udaletxe berriko altzarietan ia 180.000, Zabaleta Berriko auzo elkarrean 90.000, kaleko argietan 50.000 eta kaleen konponketan 25.000 euro.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Aruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GAZTELEKUA



Gaztelekuko instalazioak ikusteaz gain, gazteek malabare tailerra izan zuten. Honetan kariokak egin zituzten.

Gaztelekua atek ireki zituen

Herriko gazteek Gaztelekuko instalazioak ikusteko aukera izan zuten

Lasarte-Oriako Gaztelekuko aurkezpen jaialdia izan zen ostiralean. Honetan herriko gazteek instalakuntzak ikusteaz gain, malabaretako tailerren parte hartu ahal izan zuten eta jai handiari amaiera emateko kontzertua izan zen Psicoacoustic taldearen eskutik.

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta Gaztelekua irekita festa izan zen ostiral arratsaldean. Herriko gazteek Gaztelekua ezagutzeko aukera izan zuten.

Arratsalde osoan zehar, tailerretako gelak, entsegu gelak, dantza egiteko gelak eta areto nagusia ikusgai izan ziren. Pablo Barrio alkatea eta Taxio Arrizabalaga Gazteria,

festak eta kirolak saileko arduradunak izan ziren bertan herribildu ziren gazte eta helduei Gaztelekua nondik norako azaltzeko.

Honetaz gain, gaztetxoek meriendatzeko aukera izan zuten, baita malabareetako tailerren parte hartzeko ere.

Eta jaialdiari amaiera emateko, Gaztelekura herribildu zirenek herriko Psicoacustics

taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera ere izan zuten.

Gazteentzako tokia

Gazteria saileko arduradunak azaldu zuenez, apiriletik aurrera bertan gazte ikastorak egiten hasiko dira eta aurki, 12 eta 17 urte arteko gazteentzat, Nerabeen Zerbitzua martxan jarriko dute.

Era berean, Gaztelekua erabilera zehazteko prozesua egingo da. Udalak gazteen proposamenak jaso nahi ditu eta horretarako, apirilaren 18an, 18:30ean bilera egingo du Gaztelekuan. Herriko gazteei dei zuzena egin die, beraz, Udalak.

Literatur lehiaketa martxan

Lasarte-Oriako Udalak, Kultura Batzordearen bitartez udalerriko haurren eta gazteen literatur sorkuntza bultzatzeko eta sustatzeko helburuarekin, Lasarte-Oriako Haur eta Gazteen XXVI. Literatur lehiaketarako deialdia zabaldu du.

Honekin batera helduei zuzendutako XXVI. lehiaketa ere martxan da.

Gaztelaraz zein euskaraz

Honetan Lasarte-Oriako bizi-lagun diren euskarazko zein gaztelarazko idazleek parte hartu ahal izango dute eta argitaratu gabeko idazlanak aurkeztu beharko dituzte. Haur eta gazteen kasuan ipuina eta poesiak aurkeztu ahal izango dira euskaraz zein gaztelaraz eta helduenentzat iaz estreinatutako mikrokontakizunak eta poesia lanak.

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta sariak



Iaz sarituak izan ziren parte hartzaileak udal ordezkariekin batera.

www.lasarteoriasarean.eu-n argitaratuko dira. Ohi bezala lehiaketan aurkeztutako lanak originalak izan beharko dute eta egilearen anonimotasuna ziurtatzeko, gutunazal itxian aurkeztu beharko dira datu pertsonalak.

Jatorrizkoak aurkezteko epea 2013ko maiatzaren

17an 13:00etan amaituko da eta Manuel Lekuonan utzi beharko dira edo postaz bidali epearen barruan.

Epaimahaia urrian bilduko da eta sari banaketa ekitaldia azaroaren 23n egingo da. Sariak iaz bezala dirutan emango dira diplorakin batera.

OINATZ

Leitzalarrea eta Harriaren museora

Leitza inguruan, Leitzalarrea, Monumentu naturala den Izaetako izaidia edo "Peru-Harri. Harriaren museoa" daude.

Leku hauek bisitatu eta bertako bitxikeriak eta historia ezagutzeko asmoz, Oinatz taldeko lagunek otsailean bertan behe-ara utzitako irteera burutzeko asmoa dute apirilaren 14ean, igandea. Irteera ordua 10:00etan izango da Jalgi Kafe-Antzoki aurrean, aurobusa edo koxeak hartu eta Leitza joateko.

Parte hartzerantz animatzen dituzte herritarak. Izena emateko azken eguna apirilak 12 ostirala izango da Ttakuneko egoitzan.



GAZTE KLUBA

Lehiaketa gozo-goza

Gazte klubeko lagunek ederki gozatu zuten ostirala arratsaldean Udaletxe berriko arkupeetan antolatu zen postre lehiaketan.

13 taldek txokolatea, gailetak, gozokiak, donutsak... denetarik erabili zuten eta eskuak ederki zikindu zituzten postre gozo eta bereziena egiteko.

Epaimahaia Paki Camino eta Estitxu Garmendia lan guztiak probatu eta ez zuen lan erraza izan hiru sari ematek. Hauek postre gozoenari, itxura hobereana zuen postreari eta mantala originalena zuen taldeari eman behar zizkieten.

KIROLDEGIA

Aste Santuko ordutegia

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, 2013. urterako onartua duen egutegiak agintzen duenez, Aste Santuan martxoaren 28, 29, 30 eta 31an eta apirilaren 1ean Udal Kiroldegia eta igerilekua goizez, 9:00etatik 13:00etara erabaili ahilako dela. Era berean, egun horietan, Michelin Kirol Gunea itxita egongo dela ere oharta arazten du.

DANOK KIDE

Ahots erakustaldi ederra

Danok Kide elkarteak antolatzen duen VIII. Musika Topaketan, ostiralean, kontzertu ederra entzuteko aukera izan zen, Donostiako Francisco Escudero konserbatorioko kantu ikasleen eskutik.

Ama Brigitarren komentuko kaperara herribildu ziren herritarrek Ainhua Merzeroren ikasleen ahots trebeziak gozatu zuten. Gainera, gizonezkoetan ohikoa ez den ahotsa entzun ahal izan zen komentuan, kontratenaren ahotsa.

Guridi eta Antonio Mercero herritarren doinuek eman zioten hasiera emanaldiari. Jarraian kantu ikasleek bakarka, bikoteka zein taldean opera eta obra handietako doinuak besteak beste, Haendel-en "Mesias", Bach-en Si minorreko meza edo "La Leyenda del beso" zarzuelako duoa.



Herritar ugari bildu zen Errezitaldi lirikoaren entzuteran.



Herriko pailazoan lekukoa Aitor Landa eta honen sendiaren eskuetan.



Zabaleta auzoko lekukoa Alfonsiti eraman zuten!



Arrate Oianguren korrika, Ttakin Kultur Elkartearen kilometroan.



Kukukak lagunek mozerrotuta egin zuten korrika! Hori kolore festa!



Sorgin Jaik eta Emari Kaxkarro gainean, lekukoa Urnietan utzi aurretik.



Ostadar SKT-koneskek sasoiari daudela erakutsi zuten aldapa gora!



Herriko ikastetxeek Oriara eraman zuten lekukoa, jendetza atzean hartuta.

Herri osoa Korrika!

Festa giroa nagusi Korrikari ongi etorria egiteko

Ostegunetik larunbatera, motorrak martxan jarri eta Korrika 18-ari harrera egiteko halnabat ekinza burutu ziren Lasarte-Orian. Korrika Txikia, Euskararen 8. maratoko eta 17. Korrikako bideo emanaldia, bertso txapelketa, kontzertuak... Asko izan ziren ekimen hauetako eta larunbata arratsaldean gure herriko kaleetan barrea ibili zen euskararen aldeko lasterketarekin bat egin zuten herritarrek.

Korrika txikiak eman zion hasiera Korrika 18-ri ongi-etorria egiteko ekimenei. Ostiralean, berriz, Korrika Kulturala egitarauaren baitan Euskararen 8. Maratoko bideo emanaldia egin zen Manuel Lekuonan. Honekin batera Korrika Txikia eta Korrika 17 ko bideoak ere ikusi ahal izan zituzten gerturatu ziren herritarrek.

Erra! Bertso eskolako gaztetxoek doinuak entzun, zortzikoteko kideen aurkezpen berezia ikusi eta momentu gorena, bero-bero kanta entzutean ikusleak bere aukietatik alba eta dantzan hasi zirenean izan zen.

Ondoren, 40 orduetan ger-

tutakoa gogoratu eta Korrika 17ko bideotxoak ikusteko aukera izan zen beroketa modura.

Bertsoaren eta kontzertuak

Honetaz gain, Lasarte-Oriako bertso txapelketa egin zen Jalgil kale antokian.

Azken orduko hutsiteen eraginez, lau bertsolari soilik aritu ziren kantuan: Evaristo Pikabea, Ane Labaka, Imanol Lizardi eta Miguel Angel Ortiz; Pablo Suberbiola gaitzaitzela zutela. Bertso-saio emankorra izan zen, bestek beste, Irakeko egoera, Santos Uribe atleta beteteroaren bizitzeko grina edota Korrika bera izan zituzten aipagai.

Ane Labaka bertsolari gazteak irabazi zuen herriko txapelketa eta Korrikaren petoa eta ardo botila bat jaso zituen opari.

Gaueko ordu txikietara arte berriz, musika izan zen Okendo plazan, Mendekua ltxua eta Ingo al Deu taldeak izan ziren oholtza gainean publiko gaitzean sutuz.

Korrikaren zain

Larunbata goizean, Korrika Lasarte-Oriara inisi arte, herritarrek ez zuten aspertzeko betarik izan.

Eguraldia lagun, Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunak aritu ziren kaleak girotzen.

Bitartean, Okendo plazan Ostadar SKT-k antolatutako haur eta helduentzat herrikirol probak izan ziren.

Jarraian, Rafafa magoaren ikuskizunak etxeko txikiak aho zabalik utzi zituen magia

eta umorea uztartuz.

Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunak kale antzerkia ere ikusi ahal izan zen herriko karriketan zehar.

Eta eguerdian, Alboka abesbatza, Xumela koruko eta Banaiz bagara elkarteak lagunak eskutik, euskal doinuak abestu ahal izan zituzten hala nahi izan zuten herritarrek.

Korrika 18

Paella jenez Okendon bapoz bazkalduta bertsolariaren koplek animatuta ekin zioten Korrikari herritar askok.

Korrika Hipodromoko zubitik iritsi zen atzerapenaren zubietarren eskutik eta orduan abiatu zen euskararen festa. Korrikaldi polita egin zuten lasarteoriatarrek. Lekukoa eskutik eskura ibili zuten eta euskararen aldeko oihuak izan ziren kaleetan nagusi.

Bilbidean momentu hungi-garriak, aldarrikapenak, antzerkiak... denetarik izan zen. Munterri AEK-k hartu zuen lekukoa lehenengo, ondoren Kukukako clownek, Aupa Aitor! lelopean Aitor Landa bera eta bere guraso eta senideak izan ziren protagonista Porrotx eta Marimotsekin batera. Ondoren, Ttakin kultur elkarteak kideak hartu zuten lekukoa, Arrate Oianguren zuzendaritzako kideak

hain zuten. Euskotren parean elkarteetako kideei pasa zien lekukoa Intza, Lasarte-Oria, Xirimiri, Buruntz Azpi, Arrieta-kalea eta Udaberriko ordezkariek eta horien artean eskutik eskura pasa zuten lekukoa. Zabaletako auzo elkarteak hartu zuen jarraian Pablo Barrio alkateari pasatzeko. Udal alderdien artean hutsuna bat, PSE-EE taldea. PPKo Vaneza Velezere ere lekukoa hartu zuen EAJko Alkorta, Nogales eta LOHP-ko Ana Isabel Prietoren eskutiatik pasa ondoren. Hauek herriko ikastetxei, TSST autobus eskutiatik pasa eta Oriari zain zuten Argia eta Antzako langileek hartu zuten lekukoa.

Oztarango zubi azpian zain zuten gogotsu Landaberri Guraso elkarteak.


Hauek Bilduko udal taldeari eta Urnietako bidelari maldatsuari ekin zioten LAB sindikatukoek.

Aldaparen erdian Ostadar SKT-ko kirolarien txanda izan zen eta hauek berriz, Erketzeko dantzariak eman zieten. Sorgin Jaiketako eta Ermaik gazteek egin zuten herriko azken kilometroa eta Urnietako bizilagunak lekukoa euren eman zieten.

Festa handia izan zen Korrika 18 eta Okendon nabaria izan zen arratsalde osoan zehar erromeriak alaituta.



TSST Autobusek lau gurgilak aparkatu eta Korrika aritu ziren!



Argia eta Antza egunero lez, Korrikari ere euskararen alde.



Argazki, bideo eta informazio gehiago txintxarri.info webgunean



LAB sindikatua eta Erketz Dantza Taldea Kaxkarroko aldan gora! Tipi-ttapa!



Pablo Barrio alkatea Kale Nagusian behera pozarren, atzean alderdi politiko ezberdinetako zinegotziak eta herritarrek dituela.



Garcia Goldaraz, 1 blokea
Hernani
943 55 71 54

Espozizio aldaketa dela eta

AUKERA PAREGABEA

3 Saloi Logela Haur-gela LIKIDAZIOAN



Etorri galdetzeraz

PILOTA.-

Solano eta Alvarez txapeldunorde

I. jubenil mailako bikoteak 5. postuan amaitu du Udaberri txapelketa eta kadeteak 9. izan dira

Intza elkarteko pilotariak asteburu erabakiorra izan zuten. Batetik, II. jubenil mailako bikotea Gipuzkoako finala jokatu zuen ostiralean. Aritz Solano eta Mikel Alvarezek osatutako bikoteak Gailurrerantz elkarteko bikotearen aurka jokatu zuen eta 22 eta 7 galdu zuen. I. jubenil eta kadeteek, berriz, Udaberri txapelketan postu onean geratzeko lehiatu ziren.

TXINTXARRI

Aritz Solano eta Mikel Alvarez osatutako II. jubenil mailako bikoteak final erdian Eibar garaitu ostean, Intzako bikoteak Gailurrerantz elkarteko bikotearen aurka jokatu behar izan zuten ostiralean Zegaman. Zaldibiko bikotea nagusi izan zen eta Lasarte-Oriako bikotea txapeldun ordetzarekin konformatu behar izan zen.

Aritz Solano eta Mikel Alvarezek Lasarte-Orian jokatutako partida interesgarrian lortu zuten finalerako txartela.

Jose Felix Solano Intzako arduradunak ostirala goizean azaldu zigunez, partida irekia eta borrokatua izango zen, "Gailurrerantzeko bikotea sendoa da. Haien aurka bitan jokatu dute eta batean guk

irabazi genuen eta bestean haiek".

Gailurrerantz elkarteko bikoteak, A. Iraztorza eta A. Elizegik osatutakoak, lehen fasean bost partida irabazi eta bakarra galdu zuen Intzako bikotearen antzera eta final erdian Azkoitia izan zuen aurrez aurre.

Partida borrokatu izan zen eta Zaldibiko bikoteak 22-19 irabazi zion Azkoitiko bikoteari.

Finala

Intzako bikotea ilusioz joan zen partidara. Solanok aipatu zigunez, "ez dakigu zer gertatuko den".

Gauzak honela, Gailurrerantz elkarteko bikotea gailendu zen finalean.

Partidaren ostean Jose Felix Solanok Zaldibiko bikotearen



Intzako I. jubenileko bikotea Lasarte-Orian jokatu zen final erdian.

nagusitasuna onartu zuen, "lehen bost tantoetan berdinduta joan ginen. Baina, Gailurrerantzeko atzelaria pilota ederki astintzen hasi zen eta ezin izan genuen ezer egin".

Nahiz eta Intzako bikotea txapeldun orde izan, pozik agertu da ordezkarria, "lehiaketa ederra egin dute eta finalean ere ahal izan zutena egin zuen bikoteak".

Postuak jokoan

Bestalde, I. Jubenil mailako bikoteak eta kadeteek Udaberri txapelketako postuak joko-

an zituzten.

Bi bikoteek Bergararen aurka jokatu behar zuten. Hala ere, kadeteek ez zuten partidarik jokatu Bergarako bikoteak lehiaketa utzi zutelako.

Honela, txapelketako bederatzigarren postuan amaitu zuten.

Bestalde, I. Jubenil mailakoek 5 eta 6. postua jokoan zuten jokoan.

Lehen asteburuan Bergararen 22-15 galdu zuten Chiapuso eta Aranguren osatutako bikoteak eta aste honetan etxean jokatu behar

zuten azken partida.

Michelingo partidua 22-11 irabazi zutenez, 5. egin dute azkenean Udaberri Txapelketan, 4 tantuko aldeagatik.

Gipuzkoako selekzioarekin

Bestalde, Jose Felix Solanok jakinarazi zigunez, Aritz Solano gaztea Gipuzkoako selekzioarekin lehiatzen izan zen larunbata arratsaldean, trinketeko lurralde arteko txapelketan. Nafarroaren aurka jokatu zuen eta 40-38 galdu zuen partidua eder eta lehiatu baten ostean.

ARETO-FUTBOLA.-

Lehen fasea amaitu da

Ostadar SKT-k antolatzen duen herriko txapelketaren fasea amaitu da asteburu honetan.

Apirilaren 5ean bigarren faseari hasiera emango zaio eta honetan bi txapelketa desberdin izango dira. Batetik play-off-a izango da, honetan zortzi taldek final laurdenak, finalerdiak eta finala jokatuko dituzte; bestetik gainontzeko sei taldeek kontsolazioa jokatuko dute.

Gauzak honela, partida interesgarriak ikusi ahal izan ziren Urdaneta H.K., Trumoi taberna, Balerdi harategia eta Indaux taldeek azken faserako txartela jokoan baitzuten. Batetik Indaux eta Urdaneta H.K.-ren arteko norgehiagoka izan zen eta bestetik Balerdi eta Trumoi taldeek ISU Leihokak eta Txindokiren aurka jokatu behar izan zuten, hurrenez hurren.



ISU Leihokak taldeak Balerdi harategiaren aurka jokatutako partida.

Bi talde hauek Buenetxea, Izkiña taberna, el Punto, eta Izarra bitxitegiarekin batera play-offerako sailkatuak zeuden eta ez zuten ezer jokoan. Hala ere, gogoz jokatu zuten.

Beraz, lehia gogorra izango da maiatzaren 18ko finaleko arerioak erabakitzeke aurreko urteetako finalistak

zortzikotean baitaude.

Azkenean, hauek izan dira azken faserako txartela eskuratu duten taldeak sailkapenaren arabera zerrendatuta: Buenetxea, Txindoki, El Punto, Izkiña, Isu Leihokak, Izarra Bitxitegia, Indaux eta Urdaneta. Gainontzeko seirek kontsolazio fasea jokatuko dute.

FUTBOLA.-



Ostadar eta Athletic-en arteko norgehiagoka polita ikusi ahal izan zen kirol gunean.

Athleticek 0-3 hartu du mendean Ostadar

Larunbata eguerdian herri-tar ugari hurbildu zen Michelingo Kirol gunera Euskal Ligako kadete mailako futbol partida ikustera. Izan ere, Ostadarrek Athletic talde handia zuen aurrez aurre.

Javi Olaizolaren mutilek lehen zatian Haritz Berasategiaren aukera on bat edo beste izanagatik, ezin izan zuten atsedenaldira aldeko emaitzarekin joan, gainera, zuri-gorriek 0-1ekoa sartu zieten

aldaratze baten bitartez.

Athleticek ez zuen indar erakustaldirik eman, baloia- ren jabetza gehiago eduki zuen, baina ez zuen aukera askorik sortu. Hori bai, kalitate soberan dute eta 0-2koa baloia angelurik gabe maisuki loratuz sartu zuten. Borrokan jarraitu zuten herritarrek, Xabi Ugalde erdilaria gida-tuta, baina zoritxarrez, 0-3koa sartu zieten falta baten jaurtiketak hesian jo ostean.

Agenda

Osteguna 28-Astelehena 02, Lasarte-Oria



Aste Santua iritsi da

Lasarteoriatar ugari oporretara joango den arren, Aste Santuan herrian geratuko dira asko. Egun hauetan elizkizunak eta gurutze bideak izango dira nagusi herrian. Ondoan agertzen den koadroan kontsulta ditzakezue San Pedro parrokian, Arantzazuko Ama elizan eta Brigitarren komentuan izango diren ekintza desberdinak.

Elizkizunak

SAN PEDRO PARROKIA
Osteguna 28, 19:00etan
Meza Santua. Gaztelaniaz.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Osteguna 28, 19:00etan
Meza Santua. Euskaraz.

BRIGITARREN KOMENTUA
Osteguna 28, 17:30etan
Meza Santua. Elebietara.
Osteguna 28, 22:00etan
Ordu Santua. Elebietara.

SAN PEDRO PARROKIA
Ostirala 29, 09:00etan
Gurutze bidea Kalbario bidetik.
Elebietara.

Ostirala 29, 18:00etan
Pasioa. Euskaraz.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Ostirala 29, 10:00etan
Gurutze bidea Azkorterera. Elebietara.
Ostirala 29, 18:00etan
Pasioa. Gaztelaniaz.

BRIGITARREN KOMENTUA
Ostirala 29, 11:00etan
Gurutze bidea kaperan. Elebietara.
Ostirala 29, 16:30etan
Pasioa. Elebietara.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Larunbata 30, 21:00etan
Pazko-gaubela. Elebietara.

BRIGITARREN KOMENTUA
Larunbata 30, 19:00etan
Pazko-gaubela. Elebietara.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 4, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, Pablo Bergerren "Blancanieves" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro.



Igandea 7, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Yoko" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 7, 19:30ean

Helduen zinea atalean, Pablo Bergerren "Blancanieves" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro.

Igandea 14, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Tom Sawyer" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.

Musika

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Ostirala 12, 23:00etan

Lasarte-Oriako Desperbio taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 13, 19:00etan

Dantzaz konpainiak "Ar-tean" ikusizuna eskainiko du. Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen Dantza bultzatuz ekimeneko saioa. Sarrera prezioa zehaztu gabea.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur martxoaren 25ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Margo eta Marrazki klaserik ez ostiral santuan

Lasarte-Oria bizilagun elkarteak antolatzen dituen Margo eta marazki klaserik ez da egingo martxoaren 29an, ostiral santua Manuel Lekuona kultur-etxea itxia dagoelako.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordulari, sei betaurreko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat, hiru mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Biyak Bat elkarteko kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxo amaiera arte ordaindu ahaliko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Jarraitu txintxarri sarean!!



Asteburuko informazio gehiago, bideo eta argazki galeriak txintxarri.info web orrialdean ikusgai dira.

Nahiz eta Aste Santu eta Pazko astean papereko edizioa etxera ez iritsi, herrian gertatzen diren albisteak gure orrialdean bertan aurkituko dituzue.

Jarrai gaitzazu ere Txintxarri aldizkaria facebook orrialdean eta @txintxarri twitter kontuan.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Korrikaren benetako txapelak, AEK-ko ikasleak, egunero dabilta ttipi-ttapa aditz eta ergatiboen lasterketan aurrera eginez.



8. Maratoiko bideoaren aurkezpena egin zen ostiralean, zortzikotearen laguntzaz.



Lasarte-Oriako bertso txapelketako parte-hartzaileak, Labaka txapelketa erdian.

Mila Esker!!!!

Beste behin pasa da KORRIKA gure herritik, beste behin ere herriak hartu du parte euskararen aldeko festa honetan. Berrito ere, denon artean eta ondo pasaz, jai hau aurrera atera dugu.

Honelako jarduerak aurrera ateratzeko, herritarren parte hartzea ezinbestekoa da. Gure herrian aldiz, parte hartzaile andana izaten da eta oraingoan ere hala izan da: txalapartari, dantzari, trikitilari, abeslari, abesbatza, batukada jole, musikari, bertsolari, aurkezle, sukaldari, zerbitzari, argazkilari, kameralari, kazetari, korrikalari, ...

Hau dena gauzatzeko ezinbestekoa izan da herriko dendari eta tabernariak eman duten dirulaguntza "korrika lagun" eginez, eta nola ez, Lasarte-Oriako Udalak 18. KORRIKA-ri eman dion diru eta azpiegituraren laguntza.

Honelako ekitaldiekin, gure herria euskalduntzearen bidean gero eta hurbilago egon dadin, denok lanean saia gaitzen gero eta indar handiagoz! Edo aurtengo abestiak dioden modura, gogoz!

Hitz hauen bitartez, MILA ESKER eman nahi dizkizuegu.

Eman euskara elkarri!

Munteri AEK euskaltegia



Herri bazkarian herritarrek paella jaten, goian, Aitor Landaren sendia eta lagunak.



Korrika herrira iritsi aurretik hainbat ekin-tza egin ziren, Rafafa magoaren emanaldia, Ostadarren herri-kirolak, kantujira, txistulariak...